

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Maritxu Olabiaga Etxabe*

*Donostia,  
Gipuzkoa  
(1915-2014)*

Aurkibidea



## Biografia



Donostiako Parte Zaharrea jaio zen, Fermin Calbetonen, baina urte gutxiren buruan Gaztelubidera joan ziren bizitzera. Kanpandegi kalean ere bizi izan ziren gero, urte askoan. Ama zumaiarra zuten. Bost senide ziren, horietako lau neskak. Don Migel Muñoaren ikastolara joan zen Maritxu, 10 urte bete arte. Hantxe hasi zen antzerkia egiten, euskaraz, eta gero Toribio Alzagarekin ere ibili zen. Dantza egiten eta kantuan ere trebea zen; Donostiako Orfeoikoa izan zen eta artzain-inudeetan egiten zuen dantza. 11 urterekin hasi zen lanean, labore denda batean. Arraina ere saltzen zuen, Bretxan; izan ere, aita arrantzalea zuten, patroia. 12 urte zituenerako makinaz bordatuak egiten zituen. Beste tailer batean ibili zen ondoren, Hernandorenean, ezkondu zen arte. 21 urte zituenean gerra hasi zen, eta ahizpak Mutrikura joan ziren amarekin. Anaia preso hartu zuten, zaurituta, itsasoan borrokan ibili ostean. [Arantxa Gurmendi](#) aktorea Maritxuren alaba da; haren ahotsa ere entzun daiteke tarteka elkarrizketan.

## Zintak

### DON-046

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-28
- **Iraupena:** 108 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

# Pasarteak

## 1. Gaztelubide ingurua

- **Erref:** DON-046/002
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:01:53. **Bukatu:** 00:02:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

### Laburpena:

Umetan Gaztelubide gainean bizi ziren. Ebanistak zeuden Zubigain elkartearen. Behean Mendizabal pinturak zeuden, eta gero elkarteak jarri zuten. Don Migel Muñoaren ikastola eta eliza ere inguruan zeuden.

## 2. Muñoaren ikastola, debalde

- **Erref:** DON-046/003
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:02:55. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erligioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

### Laburpena:

Don Migel Muñoaren ikastola debaldekoa zen, eta opariak ematen zizkieten; baita jakiak ere, Gabonetan. Meza ondoren, pastelak. Ikatz kalean zegoen ume txikien eskola, eta Konstituzio plazara joaten ziren gero neskak; bestela, San Bartolomera; mutilek jarraitu egiten zuten, eta lanbideak ere ikasten zituzten. Solfeoa ere ikasten zuten. Mutilentzat jolaslekua eta elkarteak ere bazeuden. Arrantzaleek ere laguntza eskatzen zioten Muñoari.

## 3. Muñoaren familiaren kontuak

- **Erref:** DON-046/004
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:08:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

### Laburpena:

Migel Muñoaren anaia alarguna zen, eta erdaraz egiten zuen dena; Los Angeles ikastetxean zegoen hura. Don Migelen bizilekua. Familiari buruzko esamesak.

#### 4. Arkumea tokatu zitzaionekoa

- **Erref:** DON-046/005
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:08:24. **Bukatu:** 00:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

#### Laburpena:

<p>Arkumea tokatu zitzaion, ikastolako zozketa batean. Biberoiarekin hazi zuten. Txuri txakurra eta biak Gaztelura joaten ziren. Bizilekuz aldatu zirenean, baserri batera bidali zuten arkumea, eta ondoren zer gertatu zen kontatzen du. Perico zuen izena.</p>

#### Transkripzioa

-Arkumia edo tokatu zitzaizun.

-Bai. Iten zuten urtian... ba Pazko Eguneako edo izango zan, ez naiz goatzen ze eguna, iten zuten arkumia rifatu, juten giñanai. Eta nei tokatu zitzaidan. Ta zea, biberoiakin hazi genun. Eta geneukan txakur bat, Txuri deitzen giñona. Eta biyok juten zian Gaztelua, bakarrik. Eta gero balkoitikan etxea deitzen giñun: Txuri, Txuri!, txakurrai, eta biyak etortzen zian /etortzentzian/ etxea. Eta han trantsito haundiya zan gure etxian eta han jarri genun lastuakin ta /da/ horrela, lo iteko arkumiak. Bestia eozein tokitan zakurrak lo iten zun ta kito. Ta baiño kosta zitzaigun arkumia, jesuus! Moldatzen giñun dana: eman biberioia ta dana, ta ni ohira jun baiño leno han zeon nere ohiyea gañean arkumia. Oi ama, ze abanta ematen zun harek! Bai, bai.

-Eta pena emango zizun gero arkumia kentziak...

-A, ez dakizu ze in ziguten /intziguten/, gaiñea! Honbre! Halako ederra in zan /intzan/, haundiya ta zea, eta biyak ibiltzen zian, txakurra ta bea. Baiñon hortikan jun giñan Calle Campanario beatzi hirugarren bizitzara. Eta aitik esan zun /esantzun/: "Ez, ezin deu eaman arkumia ta txakurra hara"; hirugarren bizitza, gaiñea. Eta bueno, ba beak ezautze(n) zula basarriya zeukan bat, eta uste det /ustet/ gaiñea zala... Kaperotxipinekua izan behar zun, nere aitan barkuen jabia. Hitz ein zun aitik, eta baietz, tokiya bazeola arkumiantzako, jakiña! Eaman, eta halako batian arkume erdi bat, buruik eta ezerre gabe, eta nola nere aitai opari asko iten ziyoten, bai pasteleiko gauzak, tartak eta hola, holako gauzak asko iten zioten, eta bueno, ba opari bat. Opari bat? Gure Perico! Hil, eta ala, guri ezer esan gabe. Jo, ze... ez genun jan, e! O, Jesus! Gure Perico nola jango genun! Ezta, ezta... ne amak labian jarri zun, baiñon guk ez genun jan. Baiño jan zun nere izeba Ramonita [...]; Estellatik etorri zian hoiyek gue etxea, beaiyek konejuak ekarri zuten, baiñon arkumia jan zuten!

-Truke ona da.

-Bai, bai. Guk ez konejoik eta ez arkumeik! Konejua ez zitzaigun sartzen ta /da/ arkumia ba... Perico zan ta ez, ez gendun jan.

#### 5. Inspekzioa zetorrean, erdaraz

- **Erref:** DON-046/006
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:14:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Bost senide ziren, lau neska. Muñoaren ikastolan, euskaraz. Señorita Candida eta Señorita Loreto izan zituen andereño. Inspektorea joaten zenean, erdarazko liburuak ateratzen zituzten. Solfeoa nola erakusten zuten. Mutilek abantaila zuten horretan ere.

**Transkripzioa**

-Zenbat senide ziñeten zuek?

-Bost. Lau neska eta mutil bat.

-Eta lehen esan dezu Muñoan eskolan hiru irakasle zeudela.

-Bai, mutillak, eta bat han bertan bizi zan. Eta apaiza ere bai, han bizi zan. Don Migelen... Calle Campanarion... Oain jubilatuen zerbait uste det / ustet/ daola.

-Bai, Kaialde.

-Kaialde. Han. Han. Zegon frontoia goiyan...

-Eta zure irakasle, zeintzuk izan zian?

-Ba neria izandu zan Señorita Candida eta Señorita Loreto, biyak. Señorita Loreto zan alarguna, eta harek erakusten zigun egiten "punto cruz" eta "cadeneta" eta holako gauzak, bainikak eta hoiyek, bere etxian. Hua ez zan /etzan/ ikastolara juten. Loriya zegon ta /da/ ez. Eta udaran hoiyek zeukaten kasetak, egurrezko kasetak. Eta Margarita neskatxa, bueno beaiyekin bizi zan, etxeko bat bezala, eta gero udaran launtzen zun hemen 'e bai. "O sea que" familikua bezela. Eta gu lanak iteko juten giñan etxea, eta Señorita Loretok erakusten zigun. Eta Señorita Candidak ba lenbizi kartoi haundi batzuekin a, e, i, o, u ta hoiyek. Haundiyak, kartoi loriyakin. Aulki batian jarri, hola buruko aldian, eta makil batekin ba han erakusten zigun. Gauzak.

-Euskeraz?

-Bai, bai. Bai. Eta gero handikan koskortuta plazan eosi zun ta jun giñan hara. Baiñan etortzen zian beidatzea ze iten genun ikastolan. Eta orduan eukitzen genun bazpanere, nola zan? Carmencita bat, liburu bat erderazkua, eta bestia... hola, bi liburu, etortzen bazian ba... ikusteko...

-Poliziya ta hola?

-Bai, horrela nunbait zeon. Eta haiyek ateatzen zitun, ta... irakurtzen genun, jakiña.

-Eta bestela, libururik bazenuten, euskerazko libururik?

-Bueno, gutxi gorabehera bai, gero ikusi tut, ba hoiyek txikiyak zianian ta Elbirak zeuzkanak.

-Xabierto.

-Bai, baiñon askoik ez liburuik eta, gehiyo zan hitza eta holako gauzak. Solfeo, "por ejemplo", erakusten zigun, arbel haundi bat zegon, eta hua Don Migelek erakusten zigun, eta han jartzen gindun ba eskaillera bat bezela, bestia txirrista eta holako gauzak. Eta zan abesten: ligatua zanian abotsa, hortikan! Bestela, ba zan... esplikaziyo hoiyek ematen zigun, ta gero nik ikusi ba solfeuan baliyo zutela, e! Baiñon bai, eta erakusten zigun hori abesten. Baiñon mutillai oso ondo, e! Eraskuten ziyon aber, e... Bigarren zuzendari bezela zegon Donostiko banda munizipalean, bulebarrean ematen zuten konziertuak. Eta harek erakusten ziyoten mutillei solfeo. Guri ez, guri Don Migel beak iten ziguna. Baiñon ez, oso...

mutillai asko. Neskai ez zeon /etzeon/ gauza oso... oso moldatua, baiñon beak nahi zun nunbait azkenengo atera bi neska e... andereñok iteko. Baiñon ez zun /etzun/ lortu. Zeatikan ya ni lanian nebillen.

## 6. Eskola gustatu ez

- **Erref:** DON-046/007
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:17:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

### Laburpena:

<p>Ez zitzaion eskolara joatea gustatzen, eta gazte hasi zen lanean. Okendo kaleko eskola batean egon zen, baina kolperik jo gabe. Bederatzi hilabete egin zituen han. Komunera joateko behatza altxatzen zuten; zigortzen zutenean, komunera joan beharrean kalera joaten zen, eta ez zen bueltatzen.</p>

### Transkripzioa

-Ni hasi nitzan oso gazte lanian. Nei ez zitzaidan gustatzen ikastola, ezta, ezta pentsatu´re.

-Ez?

-Ez ziten gustatu. Eta orduan ba nik Jauna hartu nun hamar urtekin, eta eman ziaten Calle Okendo, señor de San Bicente, [...] San Bicente; lenbiziko bizitza batian. Erderaz. Eta han pasa nun bederatzi hillabete, hamabost pezta hillian, eta punto. Gehiyo ezerre, zergatikan ez nun iten... Leno, e sumak eta kontu guztik ondo iten nitun, baiñan horrea jun nitzanian batez. Zergatikan ne anaiya zebillen Lekarozen, batxiller iten, eta udaran etortzen zan ikastola hortan. Eta neskak ba mutillen ondoan [...] eta oso guapua zan ne anaiya. Eta danak haren kontu guztiyak esateko, ze idazten zun Lekaroztikan ta /da/ dana... eta iten ziaten kontu guztiyak, ba nik ze gehiyo nahi nun! Ba nik ez nun ezerre iten! Eta aurreaka jun biharrian atzeaka. Aitak beidatzen zian noiziak eta behin kontuak, eta [...] zegonian, itsasotik, eta ni ba gero ta gutxiyo. Eta esan zun /esantzun/: “Ze gertatzen da hemen?”. Eta orduan atea ziaten, eta horregatikan beatzi hillabete besteik ez nitun pasa han, ikastola hortan. Baiñon ba... tranpak nik iten nitun, orduan. Komuna zeon kaleko atian aurrian, eta zigorra eman bazian gaizki irakurri nulako, gehiyenetan hori zan, eta nik jartzen nion bihatza. Eta han hitza gutxi iten zan, zeatik beti bihatzakina. Bi eta bat zian. Eta...

-Ze esan nahi zuten? Bik eta bat, ze esan nahi zuten?

-Ba beida: bat pixa eta bestia kaka. “O sea”, beida ze axola zitzaiyoten beaiei ze in behar gendun, baiño... bai. Hori zan. Eta orduan ba eskatzen nion baimena bihatzakina ba kumunea juteko. Eta orduan komunea jun biharrian kalea jutun nitzan, ta /da/ akabo! Egun hortan ya ni ez nitzan azaltzen! Ez, gaiñea zeon e... jende asko, asko. Eta gehiyenak zeuden ba andereño iteko, “farmacia”-ko zea karrera iteko... eta holako... besteak, beste karrera bat zeukaten eta askatuak asignatura bat geatu... horrela zeon. Eta guetzako han ez zeon tokikan. Ez geneukan pupitreik ta ezerre. Gue trastuekin ibilli behar genun atzea ta aurrea.

-Ta hori zenbat urtekin?

-Ba hamaika urte itea. Hamarrekin Jaunartzia, hamaika urte itea. Eta bueno

ba... ya batez. Orduan nere amak berriz: "Jun Señorita Consuelongana". Jun nitzan eta esan zian. "Ta zuri zeñek esan dizu etortzeko?". Orduan bai lotsatu nitzan, e. Eta esan nion: "Amak". "Eta zein da zure amak, agintzeko hemen sartu ta atera nahi dezunian?". Ta etxea bialdu zian. Esan zian: "Esan amai etortzeko". Nik amai esan nion, baiña ama ez zan /etzan/ jun.

## 7. 11 urterekin lanean

- **Erref:** DON-046/008
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:17:41. **Bukatu:** 00:20:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

### Laburpena:

<p>11 urterekin lanean hasi zen, punta egiten zuten denda-tailer batean: Anzizuneko dendan. 12 urterako "destajora" egiten zuen lana, baina hasieran mandatuak egiten zituen; ez zenez legezkoa hain gazterik lana egitea, komunean edukitzen zuten ezkutatuta. Amak 10 zentimo ematen zizkion astean.</p>

### Transkripzioa

- Ta orduan ba ne lehengusu bat etorri zan, nahi banun lan in. Eta hamaika urtekin hasi nitzan lanian. Anzizu. Anzizunekoak zeukaten denda puntokua, Calle Mayor ta /da/ Pullueloko ixkin hortan. Eta gero jarri zuten Grosian, eta dana, ni beaiyekin jun nitzan lanian, ya destajoa ta dana iten nun lana. Oso gazte. Ya ez nitzan /enitzan/ gehiyo ikastola jun.

- Eta zure hasierako lanak han dendan, ze, zeintzuk izaten zian?

- Zean? Mandatuak. Eta nola gaztia nitzan, ba ez... Aber, jakite(n) (d)ute, leno ´re bai eta oaiñ ´e bai, ispektora dijuanian, zergatikan ispektora zeukatenian jungo nitzala o zeukaten hillian egun bat edo... ezin da euki ispektora bezela hola. Ez dakit. Nik gero pentsatu gauzak hoiyek, orduan ez. Ba eoten nitzan komunean sartuta, han, exerita komunean. Eta mandatu bat baldin bazeon handikan bialtzen ziaten mandatura. Eta ez... gaztia nitzalako, ez [...] hartzeko. Eta eguardiyan, etxeko andria zan oso langillia eta han jartzen zunakin pixkat jaten zun, gutxi gaiñea jaten zun, eta lanian eoten zan. Ta /da/orduan, nei lana gustatu zait beti. Ze gauza, e! Ikastola ez, baiño lana bai. Eta orduan geatzen nitzan amakin, han, eta ni hasi nitzan puntokua han nola, ikusten nun nola ibiltzen zian han, eta ikasi nun. Eta ya nik hamabi, hamabi urteako ya ba iten nun zeak, e, nola deitze(n) diote? Patzen, "según" ze lan iten nun patzen ziaten.

- "A destajo"?

- "A destajo".

- Eta ze iten zenun? "Puntocruz"-en lan, iten zenitun lanak?

- Ez, ez, punto. Makinakoa, bai. Orduan hasiera izandu zan. Listak, e, txaketak e, hau, borde hau txaketai iteko... o beste, beste... bueno, honek ez dauka baiñon... bestiak zeukaten e, zeakin, eskumuturrak eta bezela, zenefa hemengua, lepuak eta eskumuturrak eta hoiyek danak. E, bi eskumutur iteatikan bost xentimo pa(ga)tzen zuten. Metrua, bost xentimo

tirak. "O sea que" horrela. Eta iten nun nahiko, ateratzen nun nahiko, e!  
- Hamabi urtekin hori...  
- Bai, ateratzen nun nahiko, zergaitikan nola ez ziaten /etziaten/ beidatzen zer egin, eta nik orduak pasatzen nitun han ta /da/ oso ondo. Gustatzen zitzaidan. Eta gero nola ikasi ez zitzai... lana in bai, eta dirua're bai. Eta nola nere amak hamar xentimo astian ematen zian, bueno, ba nik lan iten nunean ni e... zea, "destajo", amak ez zekien ze irabazten genun, orduan zizatu iten nion!

## 8. Arraina saltzen

- **Erref:** DON-046/009
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:20:55. **Bukatu:** 00:23:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

### Laburpena:

<p>Arraina saltzen ere ibili zen, Bretxan. Etxekoa. Itsasoko gizonen "partiya" saltzen zuen. Aita patroia zen. Osaba ere kapitaina egin zen, eta Manila aldean bizi zen. Amaren aldetik baserritarrak ziren; Zumaiakoa zen ama.</p>

### Transkripzioa

-Ni arraia saltzen'de oso gazte eondu naiz. Aber, hamar urtekin etorri nitzan Gaztelubidetik Calle Campanarioa, ta han Gaztelubiden ni aspertu nitzan arrandeira juten, beste arrandei hau bota zuten azkenengo, bota ta berriya in zutenian, bitartian Bretxan eondu giñan egur batzuket inda puestuak.

-Zu ibili ziñan, arraia saltzen?

-Bai, bai.

-Eta nola iten zenuten, arraia kaian hartu?

-Ez, nik arraiya neukan etxekua. Bai, etxekua, partilla iten dana, itxasoko gizonak partilla iten dute, ta partilla hori saldu iten nun, o bien medianak edo... zegona.

-Arrantzale bakoitzak...

-Bai, ematen diote, ez eman bihar diotelako eh, zegatikan daukate been, been soldata, baiñan aitag esaten zun nahiyo zula beak eman, ez bestiak ostutzia, oseake beak danai, danak barkuan zeuden, nere aita patroiya zan-ta. Zan 'patron de pesca y capotaje', bi soldata hoiyek zeuzkan zegatikan bat zan arrantzako, eta bestia zan oain kapitanak ibiltzen diana, baiñan orduan kapitan gutxi ibiltzen zan, eta orduan zian ba hori gehiyenak galleguak. Hemen ez zeon eskola hori ta. Eta bueno, aitag beak agintzen zun barkuan, kapitana izango balitz bezela, eta zeukan nombramentua ba hemendikan Inglaterran ez dakit zein tokita zeaitikan hara legorrez jun ta itxasoz etortzen dan barkuakin, oseake zeukan nombramentua han Inglaterran ez dakit nik noaiñon zeukan. Eta orduan jun leike bea, bestela ezin zun jun, bihar zun zea, kapitan batek. Zeaitikan nere osaba're kapitana in zan, baiñon jun zan zeara, Manilla aldea ta ez zan azaldu honea... Ya nik osaba ezautu nunian ya urtiak zeuzkan, oseake...

-Orduan aitan familiyan arrantzaliak.  
-Bai, bai. Eta amen aldetik baserritarrak, bai.  
-Nungua zan ama?  
-Ama Zumaikua.  
-Zumaikua?  
-Bai.

## 9. Aita, patroia ona

- **Erref:** DON-046/010
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:23:16. **Bukatu:** 00:25:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Legatza
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

### Laburpena:

Kaperotxipi zen familiako azken itsasontzia. Legatza arrantzatzen zuen. Lehengo arraina askoz freskoagoa zen. Kanpoko bokarta ez da hemengo bezalakoa. Aitak asko harrapatzen zuen, eta asko irabazten zuen. "Iñaxio okerra" deitzen zioten. Pasadizo bat kontatzen du, legatza nola ekarri zuen beste ontzi batzuk hutsik kairatu arren.

## 10. Itsasontziko argiak itzalita

- **Erref:** DON-046/011
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:25:46. **Bukatu:** 00:27:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa
- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

### Laburpena:

<p>Aldaba jotzen zuten goizaldean, etxean; gero tinbrea jarri zuten. Argiak itzalita irteten zen arrantzara aita, beste ontziak despistatzeko. Atzetik ibiltzen ziren eta. Bakailaoa nola desagerrarazi zuten.</p>

## 11. Gerrako itsasontzia

- **Erref:** DON-046/012
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:27:28. **Bukatu:** 00:29:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

### Laburpena:

<p>Ikastolan zebilela, gerrako barku frantsesa ibiltzen zen, "Ale-ale", arrantzale frantsesei laguntzeko. Bertakoek, berriz, dena zailtasunak. Karmentxuren kontuak, haren aita arrantzalea falta zela eta. Sardina ederra zegoen abuztuan, baina hura ere bukatu zen.</p>

### Transkripzioa

-Eta hemen, orduan ere gu txikiyak giñanian ikastolan, ba deitzen giñon 'ale ale', ez dakit ze deituko ziyoten, gerrako barku bat, frantsesa. Eta bokarta ta ibiltzen, sardiña ta alde hontatikan, eta beti frantsesak ateatzen zianian barkura, arrantzara, haiyei ezer ez, kontu iten zioten, eta hemenguak hartu ta ematen zituzten Baiyonara, kentzen ziyoten arraiya, ematen zioten multa...

-Ah bai, eh?

-Eta han zeukaten beentzako, been barkuentzako 'ale ale', kontu iteko... Eta hemenguak ez zeukaten ezer'e orduan ere, beti España zikiñ hau, eske horrela gertatzen da aizu! Eh ba, bueno, ba ze esango dizut ba, orduan'e kontu iten zuten, beste aldian, eta hemen ez, eta beti istillutan, eta bat juten zan Karmentxo ta bere aita ta, bapoe txikiyan zebiltzan hoiyek, eta orduan [...]: "Ze gertatzen da?", ta "aita ez da etorri arratsian". Ez gendun jakiten gaiñea. Eta jo, [...]'re ya gurekin iten zan, beak ez zeukan ezer'e arrantzaliena, baiñan orduan jartzen zan ta esaten zun: "bueno, jun Karmentxo, jun etxea ta aber, etorri dan aita", ta, horrela bizi giñan, gu neska koskorrak ikastolan, aizu! Orduan ere, eta lehen agostuan sardiña zegon izugarri ederra, ya bukatu zan, eta akabo! Eta bokartakin berdin gertatuko da.

## 12. Arraina buru gainean eramatea

- **Erref:** DON-046/014
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:30:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

### Laburpena:

<p>Arraina lehengo arrandegian eta gero Bretxan egon zen saltzen. Sekula ez du ikasi gauzak buru gainean eramaten; amak bai, oso ondo egiten zuen.</p>

## 13. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-046/015
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:30:53. **Bukatu:** 00:33:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

#### **Laburpena:**

Tabak, kromoak, kanikak, diaboloa, saltaka, lau ezkinetara, faroletara... Korri eta salto egiten zuen asko, mutilek ere ez zioten irabazten. Bihurrikeriak egon ondoren, etxeetako atea zabalik egoten ziren, eta ohe azpian ezkutatzen zen. Sokasaltoan ere bai. Martinaren kanikak nola galdu zituen. Señorita Consuelok takatekoa eman zion buruan. Makilarekin jotzen zuten.

### **14. Gazteluan, gaztainak batzen**

- **Erref:** DON-046/016
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:33:44. **Bukatu:** 00:36:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

#### **Laburpena:**

<p>Gaztelura asko joaten ziren. Pikuak, gaztainak, intxaurreak... zeuden. "Felix gaizto" zen hango guarda. Behin, gaztaina batzen zebilen neska bat sudurra odoletan aurkitu zuten, erorita. Botikara lagundu zion, eta handik Cuarto Socorrora, Amarara, tranbian. Zapia ere eman zion.</p>

### **15. Kontxako kasetak**

- **Erref:** DON-046/017
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:36:22. **Bukatu:** 00:40:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Aisia » Oporrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

#### **Laburpena:**

<p>Kaian bainatzen ziren, kofradia parean. Soineko bat jantzita sartzen zen uretan. Mutilek nola hartzen zituzten txanponak, uretan. Hondartzan izeba-osabek kasetak zuten. Kabinak egiten zituzten gero. Batzuek goiz osorako alokatzen zituzten, Zaragoza aldeko dirudunek. Hasierako kasetak bikoitzak ziren, eta leihoa ere bazuten; barruan, barre&ntilde;oa urarekin, kortxozko alfombra eta eserlekua. Osabak kasetak gora igotzen zituen, behiekin Kontxara itsasgoran. Behiekin ibiltzen ziren denak orduan, kargarekin. Gazteluan gordetzen zituen behiak osabak.</p>

#### **Transkripzioa**

-Eta baiñatu-eta iten ziñaten han, kaian?  
-Kaian bai.  
-Bai?

-Zean, kofradiko aurrian. E, juten giñan... aber, ni juten nitzan soiñeko bat eta azpiko galtzak. Ta espartiñak. Eta nola dao kofradiya lengua, ta dao ez takit ze... museo bat... Eskaierak daude han...

-Alaba: Museo Navala. Oain daon...

-Bai, bai. Ba eskaillera hoiyetan lagatzen genun espartiñak eta zea, e... bata eamaten nuna, soiñekua. Eta beste soiñeko bat jantzi gaiñetikan ta harekin. Ta galtza bustiyak, denboa guztiyan, e, udaran. Denbora guztiyan. Itsasoko urakin bustiyak.

-Mutillak ez zian ibiliko hain tapatuta.

-E?

-Mutillak ez ziala ibiliko hainbeste...

-Ez, ez, ez. Mutillak e... galtzakin ibiltzen zian haiyek, egun guztiyan beren galtzakin. Nola dirua hartzen zuten ta /da/ dana... Dirua botatzen ziyoten hartzeko beraiyek abuakin, baiño eskuakin hartzen zuten ta gero abuan sartu.

-A, bai?

-Tripen azpiyan gordeta, bai.

-Ta nork, nork botatzen zun dirua?

-Kontatu?

-Ez, bota. Nork botatzen zun?

-Jendiak, jo.

-Kanpotarrak?

-Bai. Eta hemengoak ere bai. Hemenguak ere bai.

-Alaba: Oain ere egiten da hori.

-Bai, oain ibiltzen dia...

-Aita Mariko aurrian ibiliko dia seguruen, ez?

-Alaba: Bai.

-Bai. Zeatikan hor geatzen zaiyote, oain beste tokikan ez dao ta. Han.

-Eta hondartzara juten ziñaten?

-Baita ´re, zergaitikan hondartzan geneukan izeba ta osaba, kasetakin. Egurrezko kasetak leno, ta gero kabinak in zituzten lenbizi era batea, e... arkupe denian in zuten kabinak, e, ate bakoitzian zian lau kabina ta ropero bat. Aldatu eta baiñuakin jasota erropa zuria eman kabinakuai eta harek jartzen zun roperuan. Eta juten... horrela hustu iten zendun. Batzuk zeukaten alkilatua ee.... egunero goiz guztiya berentzako. Baiñon ba izaten zan /izatentzan/ eukitzen zutela gehiyenez ordu bat, bi ordu gehiyenez. Baiño eta geo jendia baldin bazeon sartzen zuten hor ere bai. Hoiyek zian gehiyenak Zaragozako aldeko jendia, diruduna. Etortzen zian asko.

-Eta hasierako kasetak, egurrezkuak.

-Egurrezkoak zian. Eta zeuden, e... zian dobliak. Antiguan txikiyok zian.

Dobliak: zeukaten zea, erdibitua egurrakin ta /da/ dana. Zeukaten leiyo bat ere bai bakoitzak, baiño zeukaten gero barreño bat, urakin, eta zea bat, e... kortozko alfonbra bezela, horrela, ta exerleku bat. Han hankak-eta garbitzeko, jazten ziñanian oiñetakuak eta jartzeko.

-Eta gurpillak zituzten?

-Kasetak? Baaai. Bai, nere osabak jasotzen zitun, itsaso haundiya iten zunian... zeuden argoiya batzuk, oain ez dakit dauden, zean, hor e... hondartzan, zea iten dunian itsas... hondartzarako... muralla hori bezela, han zeuden argoiyak eta han lotuta geatzen zian kasetak batzuk, azkenenguak, baiño beste danak behiyakin iyotzen zuten zeara, gora, Kontxara.

-Behiyekin?

-Kontxan, bai. Behiyakin ibiltzen zan osaba. Bueno, behiyakin ibiltzen zian danak orduan. Etortzen zianian beleruak eta deskargatu gauzak eta danak, zan zeak... kamioiyak-eta ez zian /etzian/ ibiltzen, zian zeakin, behiyak. Eta

behi hoiyek nere osabak gordetzen zitun Gazteluan. Santa Martatik dauden arkupe hoiyetan zeuzkan behiyak osabak.

## 16. Arratetarrak, futbolari ezagunak

- **Erref:** DON-046/018
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:40:34. **Bukatu:** 00:42:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

### Laburpena:

Moilara tren txiki bat iristen zen, kargakoa, ikatzarentzat; arratetarrak zebiltzan han lanean. Futbolari ezagunak ziren. Marianori diru asko eskaini zioten kanpora joateko, baina ez zuen onartu. Aldatu egin da hori. Horien amak, Gerbasiak, kontatzen zuena.

## 17. Bainulariak, hondartzan

- **Erref:** DON-046/019
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:42:29. **Bukatu:** 00:46:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Oporrak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

### Laburpena:

<p>"Baineroak" eta "bainerak" zeuden hondartzan, aberatsentzat. Toldo handiak bakarrik zeuden, eta eserlekuak ilaran jarrita. Hondartzara ez ziren eguzkia hartzera joaten. Bainularien uniformeak, erremate zuriekin. Egurrezko egitura bat jartzen zuten ur ertzean, albornoak-eta uzteko. Goizean goiz bainatzen ziren. Izebak bi bainulari zituen, nafarrak.</p>

## 18. Umetatik antzerkia egiten

- **Erref:** DON-046/022
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:48:49. **Bukatu:** 00:52:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

### Laburpena:

<p>Hernandoren tailerrean hasi zen gero, eta hantxe ibili zen ezkondu arte.

Arraina saltzen eta amarekin arropa garbitzen neska koskorra zela aritu zen. Eskola ez zitzaion gustatzen, baina antzerkia bai. <em>Trapu zaharrak</em> egin zuen, Elbira Zipitriak moldatutako antzezlan. Orfeoian sartu zen, eta han <em>Bihozberak</em> egin zuen, irratian eman zuten lehena. Don Toribio Alzagarekin ere ibili zen, deklamazioan: <em>Andre Joxepa Tronpeta</em>, <em>Zozo-harro</em>, <em>Loreti</em>... Gero, batzokiko antzerki-taldean ere ibili zen.</p></div>
<div data-bbox=

## 22. Antzezlanak ikustera

- **Erref:** DON-046/026
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:00:55. **Bukatu:** 01:03:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

### Laburpena:

<p>Antzerkirako ez zegoen talde zehatzik; aldatu egiten ziren, antzezlanaren arabera. Neskak eta mutilak. Sinfo ezagutzen zuen gehiena, baina neska asko ere ez zeuden. Antzerki denak lehenagotik ezagutzen zituen, ikusiak zituelako. Victoria Eugenia (ikus mapan) eta Principalen. Aita antzerkizalea zen. Se&ntilde;orita Consueloren ustez, infernua zeuden, hara joateagatik.</p>

## 23. Dotore jantzita, antzerkira

- **Erref:** DON-046/027
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:03:47. **Bukatu:** 01:05:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

### Laburpena:

Dotore jantzita joaten ziren antzerkira. Japoniarrak hasi ei ziren toki dotoreetan edonola janzteko modarekin.

## 24. Sonbrero dendan lanean

- **Erref:** DON-046/029
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 01:05:36. **Bukatu:** 01:08:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

### Laburpena:

<p>Ahizpak sonbreroak bazituen, eta kendu egiten zizkion. Laneko kontuak, sonbrero dendan. Lan baldintzak: igandetan ere lana, batzuetan. Beti berandu ibiltzen zen lanerako bidean. Batzuetan ilundu arte lanean ere bai. San Martzial kalean zegoen.</p>

## 25. Kantuzaletasuna

- **Erref:** DON-046/030

- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:08:49. **Bukatu:** 01:10:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Aisia » Kultura » Musika

#### **Laburpena:**

<p>Kantua Se&ntilde;rita Hernandezekin ikasi zuen. Etxean ere ez zen isiltzen. Senarra ere orfeoikoa zen. Sopranoa zen, eta senarra tenore dramatikoa.</p>

## **26. Parte Zaharreko labaderoa**

- **Erref:** DON-046/032
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 01:11:59. **Bukatu:** 01:12:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

#### **Laburpena:**

Parte Zaharreko labaderoa. Chimbo eta Lagarto xaboiak erabiltzen ziren. Baldeak, lejiarekin.

## **27. Gerra etorri zenean**

- **Erref:** DON-046/035
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:13:10. **Bukatu:** 01:16:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

#### **Laburpena:**

Gerra etorri zenean, beldurtuta egon ziren. Kooperatibara joaten zen ahizpari laguntzera. Miliziano batek esne kondentsatua-eta eman zizkion, itxura txarra zuelako. Vizconde del Cerroren etxaldera joaten zen, Ategorrietara, janaria eramatera, bere burua arriskuan jarrita. Gerora, gerra ondoren joan ziren batean esan ziotena. Mirakruz kalean asko hil ziren, tirokatuta.

#### **Transkripzioa**

-Eta zuk 21 urte zenitula, gerra etorri zan.

-Bai.

-Eta zuek zer, zer in zenuten gerra etorri zanian?

-Ba esango (d)izut. Ni ez dakit, izututa, bildurtuta... butaka bat gendukan transituan, oiya iten zana. Han azpiyan jarrita, baiño gaixotu, e! Gaixotu. Juten nitzan... nere ahizpa zegon zean lanian, "este"... koperatiban. Eta hara juten nitzan launtzea. Lan... ni... lan iten beti ondo pasatu det, e. Bestela izutu iten nitzan asko. Beida nola negon: miliziano batek eman

zizkian... esne kondensadak eta ez dakit zenbat gauza, neukan itxurakin. Ez, ezin nun jan, ezin nun ezer´e ein, ezer. Bildur izugarriya! Baiño gero, ba hori, juten nitzan laguntzea Ana Mari ta hoiyei. Hoiyekin ibiltzen nitzan gehiyena, e, lursagarrak eta bakaiyua, hori zan, beste gauzak beaiyek ibiltzen zian; bi neska zian. Eta gero zegon “Vizconde del Cerro”, bizi zala Ategorrietan. Ta ze gaiztuak zian, e. Ba harek egunero junarazi iten zian eamatea lentejak, azukria, gauzak, oliyuak eta dana; juten nitzan, eta orduan deitzen zioten “los pacos”, etxetatik botatzen zuten tiruak kalea. Arrisku horrekin Alde Zarretikan juten nitzan haraiño. Eta bueno, nik lagatzen nun, patzen ziaten eta kito. Ez nun gehiyo... Han zeon Onieva, apaiz bat eskubitakua, han gordeta zeon; leiho batetik ikusten nun, besteik ez. Bueno, hori dana pasa, eta gero gerran ondoren etorri giñanian, nola jaiotza oso ederra ta jartzen zuten, jun giñan egun batian... asko ibiltzen giñan hara, villa hortan. Eta jun nitzan ta /da/ hangiak: “Ai, gaixua! Zenbat aldiz etortzen ziñan gauzak... ez gendun bihar guk”. Zeukaten beren jangela, neskatxena, zeatik zian asko, neskatxa asko... horrela kuadro bat eta zeon aulki bat. Tapakin zeukaten dana. “Horrea botatzen deu, zeaitikan ez gendun bihar. Baiño zan jendiai kentzeko”. Koperatiba nola oaindikan zeon, e. Baiño ni arriskuan jartzen nitzan! Aber Calle Miracruzen zenbat jende hil dan! Horrea, hil zuten, “vaya”! Horrea, tiruakin.

-Bai, asko?

-Bai. Etxietatik botata. Eta beste bat etxian bazkaltzen zegola, lenbiziko bizitza batian, hara sartu kaletikan bala bat.

## 28. Donostiatik ihesi

- **Erref:** DON-046/036
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:16:09. **Bukatu:** 01:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

### Laburpena:

Donostiatik ihesi. Amarekin, izebarekin eta txakurrarekin joan zen Mutrikura, taxian. Han ikusitakoak. Ikurrina nola puskatu zuten, mendian, inork ez ikusteko. Mutrikun nazionalak nola sartu ziren. Salbokonduktua eskatu zuten, Donostiara bueltatzeko.

### Transkripzioa

-Eta orduan, e... denbora luzez.... luzian izan zan hori, ala?

-Bueno, ez zan /etzan/ izan hain luzia, baiñon baiñon bai, pasatu dunantzat. Gu jun giñan, e aber, jun giñan... ama, txakurra eta ni. Ta izeba Manuela. Izeba Manuela Zumaiyan utzi genun, beste izebakin, eta gu jun giñan Mutrikura. Eta gero jun zian nere ahizpak, jun zian Mutrikura. Eta eondu giñan Mutrikun. Eta bueno, ba han zaurituak jeisten menditikan. Uaj. Batek, nola dia? “No me dejeis, nome dejeis”. Oi, da izugarriya hori, hori... Gerrak iten ditunak /iteitunak/ ez dakit zer in behar luke... Zergaitikan ikusikan hua... Eta gero guk gendukan ikurrin bat, kojín batian, eta gendukan han, gordeta o ez dakit, Ana Marik eamango zun... etxian eskuz indakua, eta geo amak esan zun /esantzun/: “Ba hori puskatu in behar da. Hori puskatu in behar da, zeaitikan gu, beste batzukin jun behar deu ta arrixkuan jarriko gea denok”. Ta jun giñan han mendi batea, ta eskerrak han ez zeudela /etzeudela/. Beste aldetikan sartu zian ta /da/. Mendi bat horrela eta horrela sartu zian zeak; bost reketek sartu zian, danak makur-

makur iña eta guk etxia han geneukan, eta leihotik beida, eta: “¡Arriba España!”, altxa zan bat. Ta geo ezautu det nik hori. Beai ez niyon esan nola aitu genun etxetikan ta ikusi gendun. Baiñon bai. Ta gu jun giñan mendira, eta goaziakin, ta /da/ ebaki eta dana pusketetan zabaldu gendun denetikan mendiyen hori. Eta gero sartu zian soldau pillak, eta orduan jun giñan salbokonduktoa ateatzea, zergatikan ezin zan /ezintzan/ pauso bat eman salbokondukoik gabe. Juteakuan ez, juteakuan jun giñan tasis batian eta ez ziguten kobratu ta ezer´e. Jarri ziguten bulebarrekuak jarri ziguten. Eta etortzeako bai. Jun zian bi tasis Vitoritikan, Ondarroa harrapatu zutela, ta ez, Mutriku hartu zuten. Eta hoiyek ez zeukaten /etzeukaten/ nun sartuikan, zeatikan etorri zian hiru barku gerrakuak, eta jarri zian, e... aber, bi kanpua eta bat sartzen zan gehiyo, Deba aldea, e. Eta han [...] barkua buelta-buelta ematen, kaiñonazuak botatzen. Mutrikutik gu ikusten hoi dana. Eta esaten zuten /esatentzuten/: “Beira, ze etxe ederra hau!”. Etxe ederra? Pareta bai lori-loriya, zekin iña ez dakit baiño teillatua.... goikua? Teillatuak ikusten zian. Aber, botatzen diute goitikan ta danak haizea hartzea goaz!.

## 29. Gerra Donostian

- **Erref:** DON-046/037
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:19:09. **Bukatu:** 01:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

<p>Donostian, Santa Maria elizan sartzen ziren, salbu egoteko. Koltxoiak eraman zituzten kapera batera; jana ere han egiten zuten. Etxeak uzteko esan zieten; militarrek Casinuan zeuden eta besteak gazteluan. Gerrako bi itsasontzi ere ibili ziren, kanoikadak botatzen (hori geroxeago gertatu zen).</p>

### Transkripzioa

-Alaba: Donostin zeundetenian ere Santamarira juten ziñaten.

-Manta Marira. Txakurra lenbizi, gaiñea, sartzen zan. Bai. Ta gero, kapillan. Geo Calle Campanarioko kapilla hortan sartu giñan, koltxoiakin ta dana, e, han. Eta zea, bakizu, calle Campanarios zea dauka, aldapa, eta han jarrita koltxoiak eondu giñan... hor lenbiziko bizitzan zeon sukaldia, zeon jangela, zeon... gauza asko, eta han eiten genun jana eta han, han geunden denea.

-Alaba: Etxetik kanpo.

-Bai, zeatikan esan ziguten, esan ziguten hustutzeko etxe hoiyek danak, zeatikan hartu nahi zuten gaztelutik zea, apaiz paseotikan nahi zuten hartu militarrek. Hor zeuden, militarrian zeuden, eta Casinuan zeuden militarrek sartuta. Eta hortako. Baiñon nik ikusi nun bat zijoala, e, paperezko... nola, “papelera” deitzen yoten xestu hoik. Hor zean batzukin e... tiro, bueno, zea batzukin.

-Balak?

-Zea batzukin. Ze in behar zuten gaztelutikan horrea? Ez zian iristen! Zian bi kaiñoiekin ta holako.... ez zeon /etzeon/ armamentuikan, ez zeukaten. Ez zeukaten.

-Alaba: Barkua zekaten hor kaiñonazoka...

-Bai, bai. Bai, ez zan /etzan/ ikusten barkua, baizikan sua iten zunian, eta batek botatzen zun... ematen zun katia pasatzen zala, ru-ru-ru soiñua, eta

bestia, berriz, birian zijoazen lertzen eta metraillak eroitzen zian erozein tokitan. Pusketa bat sama izugarria ta kiakin ta...

-Hori Cervera barkua ala...?

-Cervera ta bestia... eta bestia España zegon.

### 30. Mutrikutik Donostiara

- **Erref:** DON-046/040
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:21:50. **Bukatu:** 01:24:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

#### Laburpena:

Mutrikutik nola bueltatu ziren. Debara joan ziren; erabat txikituta zegoen Deba. Han lortu zuten pasea. Morellako aita- semeak beraiekin joan ziren. Txakurra mareatu egin zen taxian. Alde Zaharra dena ilunpetan zegoen. Etxea itxita zegoen, eta balkoietan bandera espainolak. Inor ez zegoen, eta sartu egin ziren. Salaketa zegoen beraien kontra.

#### Transkripzioa

-Eta Mutrikutik bueltatu ziñaten Donostiara...

-Bai, eta etorri giñan gabian. Bueno, "es que" bialdu zituzten Vitoritik bi tasis, zea, Ondarru hartu zutela, ta ez zuten /etzuten/ hartu; zan Mutriku. Eta geatu zan tasista hoi, bat zan nagusiya ta bestia enpliatua, bi tasista hoiyek Mutrikun ez zeon /etzeon/ nun sartuikan, eta Deban... Deba dana puskatua zeon hiru barko hoiyekin, gerrakuak jun zianak, dana puskatua. Deba zeon... zuluia toki guzitan! Eta orduan ba nere amak esan zion, aber beaiyek ezin zuten geatu Mutrikun. Guk atera nahi gendun. E, zea in gendun, ze hori, ematen zuten txartel hori pasatzeko.

-Salbokonduktua?

-Bai, salbokonduktua. Eta orduan jun giñan Debara. Deban zeuden militar zea, ya haundigok sartu zianak baiño Mutrikun. Eta haiyengana jun ta /da/ haiyek eman ziyoten pasia jun... etortzeko Donostira. Eta gu han sartuta. Ta orduan etorri zan beste bat, e, gurekin etorri zan, aita-semiak etorri zian. [Morellakuak?]. Nola daukate taberna Juanjok eta? Moillan? Ba hor leno zeon, saltzen zituztela itsasoako, barkutako herramientak; e, zea, calle Mayorren zeon bezela. Eta hango nagusiya eta semia etorri zian, "o sea que"... etorri giñan, txakurra´re ekarri genun tasisian. Mariatu in zitzaigun, ta gonbitoka txakurra gero. Bai. Ba sartu giñan Donostin, argi danak... Alde zarra dana illunpetan. Dana illunpetan eta gu sartu giñan ta /da/, jo, ez gendun ikusi behin´e horrela! Eta gue etxea jun giñan, atea, eta itxiya. Lenbiziko aldiz ikusten nula atia nolakua zan, behin´e ez zan /etzan/ ixten. "Eta oain ze iten deu? Eta aber kanpoko norbait daon etxian...". Zeatikan balkoi danak piper potuakin zeuden jarriyak, eta etxe [...] osua ez zan. Orduan, e, Petrai bururatu zitzaion gauza bat. "Beira, ni iyoko naiz. Ta tinbrea joko (d)et, eta norbait ateratzen bada ba galdetuko (d)et edozergatikan...". Aber. Iyo zan, eta jetsi zan esanez: "Ez dago iñor". Ta orduan iyo giñan etxea, eta beaiyek laga zituzten e... izparrigi zeak, orduan saltzen zituztenak. Mairidiriak eta gauzak beste alde batian eta horrela, beaiyek utzi zuten bezela zegola.

### 31. Salaketa, beraien kontra

- **Erref:** DON-046/041
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:24:33. **Bukatu:** 01:26:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

#### Laburpena:

Salaketa zegoen beraien kontra. Zerrenda beltzak nola egiten zituzten. Gerbaxik zerrenda nola apurtu zuen. Mandatuak berak egiten zizkion salatzaile hari. Aita hilda zegoen ordurako.

#### Transkripzioa

-Eta hurrengo goizian nekazarikuak bizi zian aurrian, bigarren bizitzan, eta haiyek: "Uiii, ez atea kalea! Ez atea kalea, zeatikan denuntziatuak zaudete, ama eta alaba guztik". Eta bueno, "eta ze in behar deu etxian sartuta?". Txakurra geneukan, gaiñea. Eta bueno, ba lehenbiziko orduan gaztelua, gaztelutikan etxea. Horrela eendu giñan eta esan zigun Gerbaxik: "Lasai, e, lasai". Markexeneko señorita... egunero mezeta, bea´re bai juten zan, eta behin esan omen ziyon. Lista bat eman, eta: "A ver, mira a ver si esta esto completo o falta alguna!". Denuntziatzeko. Barriyo dana omen zeon, barriyo dana. Eta bestiak: "Esto, faltar?". Ri-rau, bere aurrian. Eta esan omen ziyon: "Y a eso va usted a misa todos los días, a eso? Después pa denunciar a toda esta gente?". Horrek, horrek in omen zion. Eta nik egunero mandatuak harei iten niyon!

-A bai, e?

-Zergaitikan neskatxak zeuzkan eta esan ziyon nere amai: "Pantxa, a ver si mandas tu hija, porque los que, los caseros y así... que vengan, que vengan las señoras!". E, eta nik iten nioten egunero mandatuak, egunero. Medikua Mozos´e bai, han zan etxe barrunpe hortan eta egoten zian: "Anoche, cuando han dicho que había ofensiva, he puesto el san (santo ez dakit zer) mirando aquello, y han abanzau". Ta... nei danak aitzen nitun, zeatikan han jotzen zutenean sirenak han baneon, eskailleta. Ez, ez geneukan noa sartu. Beste etxian bai, juten giñan Santa Maira, eta korun azpiyan eoten giñan han. Baiñon izandu zan izugarriya, jendia holako jendia, holako jendia.

-Eta zure aitak eta anaiak-eta ze...

-Nere aita hil zan ordurako.

-Hilda zeon?

-Eta esaten ziguten: "Y menos mal que ha muerto. Lo demás el primero hubiera sido que lo hubieramos matau". Eta nere aita ez zan sartzen behin´e ezer´e.

-Alaba: Oso gazteak, oso gazteak ziñatela hil zan aita...

-Bai, bai.

### 32. Anaiaren ibilerak, gerra garaian

- **Erref:** DON-046/043
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 01:26:59. **Bukatu:** 01:31:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

## Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

## Laburpena:

Anaia kapitain izateko ikasten zebilen gerra hasi zenean, eta boluntario hasi zen lubakiak egiten. Aurretik, Santandertik ekarritako esnea partitzen zuen, debalde banatzen zuen. Atxilotu egin zuten anaia; zaurituta zegoen. Itsasontzi batean egon zen preso. Itsasoko bataila inportante batean hartu zuen parte, <em>Canarias</em> itsasontziaren kontra: 49 gizonetik 20 bakarrik atera ziren bizirik. Nola salbatu zen.</p></div>

## Transkripzioa

-Eta anaiyak eta, ibili ziran...?

-Nere anaiya?

-Gudari edo?

-Alaba: Anai bat zeukan.

-Bueno, "es que" hori estudiatzen zegon kapitan iteko, eta eoten zan hondartzan. Baiñon hasi zian hondartzatik hartzen zeak iteko, e... nola da iten dutena soldauak-eta egoteko?

-Guardiak?

-Ez, ze hoiyek... zulo hoiyek eta. Trintxerak, trintxerak iteko eamaten zuten. Eta orduan bea sartu zan boluntariyo, aber zerbait ona ateatzen zun. Eta atera zun kamioiyakin... bueno, itxoiten zun bulebarren. Bulebarreiño ekartzen zuten Santandertikan esnia, honea. Han esne asko eta oso ona eoten zan, eta bueno, gero zatitu kamioiyakin. Eta guk hartzen genun... patu iñork ez, e! Han esnia dana gratis ematen zan. Baiña bea, señorita Teresa [...] ba nunbait leihotik beida egoten zan. Nik ez nekin anaiya zea, ezautzen zula ere, eta hartu zutenean nere anaiya ta, ba bakizu, billatzea aber zeñek laundu o in laiken, eta nola guk hainbeste in genun etxe hartan, eta jun ta /da/: "A, Pantxa, es que tu hijo también... e?". "Y qué? Mi hijo, qué?". "Ha estau repartiendo leche!". "Y usted bebiendo!", esan ziyon. Jakiña!

-Alaba: Bai, detenitua egon zan osaba eta "pena de muertekin".

-Bai. Bai.

-Eta nun, nun egon zan, e, Ondarretako kartzelan?

-Ondarretako... bueno, lenbizi eondu zan Ferrolen. Zeatikan hartu zitun... barko Canariasek. Zaurituak zeuden bi, bi Donostikoak, biyak zaurituak zeuden, eta hoiyek geatu zian Canariasetan. Eta geo Ferrolea jun zanian, Canariasek eaman zitun hara. Eta eondu zan kontramaestre, e, nola zan? Ez, barku batian prisionero. "Barco-prisión" in zuten. Eta han zeon, eta handikan ospitalea eaman bihar zuten kura-ta itea kamillan, eta oaindikan ´e eskopetakin ta /da/ aldamenian jendia. Ezin zun /ezintzun/ ibili, ezin zun /ezintzun/ ibili, eta oaindikan ´e horrela.

-Arantxa, alaba: Parte hartu zun batailla oso famatua izan zena...

-Nabarra.

-Alaba: Bou Nabarra zan.

-Bou Nabarra.

-Alaba: Arrantzako barku bat bihurtu zuten...

-Bai, bakaillutako barkua.

-Alaba: Bihurtu zuten gerra barkua.

-Bi, bi kaiñoi. Bat aurrian ta bestia atzian. Baiñon aurrekua bakarrik, ze atzekua ya danak garbitze(n) omen zitun aurrian zeukanak; geizki iña! Ez, ez zegon hortako, ta ordun kaiñoi batekin zebiltzan.

-Alaba: Eta, eta aurre in zioten Canarias barku haundi.... gerrako barku batei. [...] in zituzten. Oso gutxi geatu zian. "O sea", geatu zian... detenitu

zituzten...

-Aber, e, zian berrogeita hamar gizon, baiño bat geatu zan Bilbon gaixo, eta orduan zian berrogeita bederatzi. Barkuakin batian ito zian hogeita bederatzi. Eta hogeia atea zian. Eta nere anaiya atea zun, zea, Armintzak. Jun omen zan ateatzeko asmuakin, baiñon bueltatu zan barkuan dirua hartzeko, dirua zeukan patrikan, eta ikusi zun nere anaiya lurrian, e, bizirik zegon baiñon ezin zun maitu´re in, odol asko galdu zun ta /da/ dana, eta bizkarrian hartu, eta eaman zun. Eta lotu zuten sokakin barkura, beste barku batea iyo zuten, eta gora atzaparrakin heldu behar zutenian, askatu eta pounba, eta jo omen zun zeakin, batela petxuakin, ta /da/ esaten zutela: “Hau ya hori hil da”. Eta ez. Orduan herentzi... kendu zioten erropa dana zeukana, zeatikan bestiak erropik gabe zeuden ta /da/. Baiñon atera zan. Bi bihatz ebakiyak eta metrailla iya gorputz denian ta /da/. Baiñon atera zan.

### 33. Anaia heriotza-zigorrera kondenatuta

- **Erref:** DON-046/045
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 01:31:07. **Bukatu:** 01:35:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Politika eta Franco

#### Laburpena:

Heriotza-zigorrera kondenatu zuten anaia. Epaiketa egin zieten 20 mutili. Francori eskutitza bidali zioten. Epailleak esan zienaz, eta orduan zuten ezinegonaz hitz egiten du. Bakoitzak berea defendatzeko egiten zituen eginahalak; eta horrek ika-mikak zekartzan.

#### Transkripzioa

-Eta eman zioten “pena de muerte”. Bueno, lenbizi in zioten... hoiyek geatu zian zean, Galiziyari, eta hemen geatu zian orduan... izandu zian hemezortzi. Bai, bi hoiyek. Eta in zioten juizioa hemenguai. Eta hemengo hemezortziei eman zioten sei “pena de muerte”; “o sea”, eta bestiei ez. Sei, ez dakit zeintzun zian sei hoiyek. Eta gero ekarri zituzten haiyek honea, Donostira, eta in zioten orduan danei juiziyua. Hogeia mutil, hogeia “pena de muerte”. Eta eondu zian hogeita ez dakit zenbat hillabete pena de muertekin. Batea, bestea... bialdu giñun e zea... “clemencia” eskatzen Francoi´de. Abogadu batengana jun giñan, zeatikan jueza oso ondo portatu zitzaigun, jende asko. E, ba esan zigun eiteko zerbait, eskatzeko zea, eta bueno, ba bakizu zer, zer gertatu zan? Ba behin jun zan jueza, bea kalea zijoan ta /da/ zea, launtzailleak esan zian: “Mira, si pasas te doy pasas para que vayas a ver al hermano”. Bueno, eta bea: “No hay nadie, qué quieren ustedes?”. Ya ezautzen zigun, hainbeste juten giñala, beti eskatzea gauzak. Eta esan nion: “No, no, no se moleste usted, porque su ayudante ya nos ha...”. “No, no, no está el ayudante, yo subo con vosotras”. Eta iyo zan ta /da/ esan zigun: “Qué habeis hecho?”. Ta: “Pues no hemos hecho nada de momento, porque...”. Abogadu bat, ez naiz goatzen abizena oain, ba esan zioten ne amai oso ona zala ta jun zan, eta esan zion: esplikatu ziyon nola zan, ta /da/ esan ziyon: “Pues me parece a mí que no hace falta de mandar ahora una petición de indulto, porque entonces uno se culpabiliza más de que tiene un pecau, que tiene una cosa. Yo no, no mandarí nada de momento”. Eta esan giñun hori juezai eta esan zun:

“No, no, no. Una madre tiene derecho a pedir en cualquier momento clemencia y todo lo que sea pa su hijo, porque si viene confirmau no hay tiempo de nada, lo matan. Viene confirmau a la noche y a la madrugada le matan”. Jo, eta emango zigula pasia denok despeditzeko. Ez giñan jun iñor, e. Anaiyengana. Hasi giñan nearrez han, juezen aurrian ta... oi ama, ze kuadro! Baiño “es que, es que”...

-Alaba: Ziñaten zuen ama eta alaba guztiak, gaztetxoak...

-Bai. Baiño “es que”... geatzen zea ez dakizula ze, zer ein behar dezun! Ez dakizu zer ein beha dezun, eta gauza gogorra da, e. Pentsatuikan hil eingo dutela, bizik daon bat, hoi... da izugarriya. Ta geo jendia hemengua, hombre, barkukuak, e, barkukuak behin... “Manteronekuak sartu al dia?”. Ta “bai”. “Es que mandatua gendukan”. Ta: “Oi, ba guk esango you, gu gero goaz barrua”. Ta: “Ez”. Ta berriro, ba ta... “Aizu, ba ze dakazu hainbeste exkutuan ibiltzeko?”, esan niyon nik. Eta: “Ez, esateko da lasai eoteko, e, zeatikan bat bakarrik hilko (d)utela”. “Eta zein da bat hori, pekatu gehiyo daukana bestiak baiño?”. “Es que” hori da, aizua, nik esan niyon: “Beida, nere anaiya “oficial” da karrerengatik, ikasi dulako, zuenak ez dute ikasi, baiño afiliatuak zian”. “O sea”, bata bestiai arpegira botatzen gauzak gero, e. Ze, ze... defenditziatik guria! Eta nei esan zian batek: “Yo he habalu con un falangista que ha hecho por todos”. Esan nion: “No es verdad, porque precisamente mi hermana y yo hemos estau ahí con el defensor nuestro, y ha venido un señor vestido de falange, con una cantidad de medallas tremendas”. Ta nola “tabique” guztiak bota zituzten, obretan zeudelako, ba agiriyan, han ikusi genuen zein etorri zan ta dana. Eta abogadua, nola hori hoinbeste medailla ta hainbeste gauzakin, gui laga zigun eta horrengana jun zan hitz eitea. Eta horrek hitz ein zion Getaikuengatikan. Gu han geunden, ateik ez zegon /etzegon/, paretik ere ez. Danak botata zian. Eta esan niyon: “No es verdad”. Falanjista hoi jun zan beren zea bakarrikan, eta nahi zuten guk ahal gendun dana berentzako. Esan giñun: “Ez. Bai, in zuek zuena”. Horrela ibili beharra gero, e! Horrela!

### 34. Inbidiak eragindako salaketak

- **Erref:** DON-046/047
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:36:28. **Bukatu:** 01:37:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

#### Laburpena:

Inbidiak eragindakoak ziren salaketa asko. Senarrari gertatu zitzaiona: dirua zor zion batek salatu zuen.

#### Transkripzioa

-Alaba: Salaketak zian...

-Bai, bai, bai.

-Alaba: ...inbidia kontuak.

-Eta zan inbidiyagatikan, e! Hombre, nere senarrai eman bihar ziyoten “Montaña número 11”; omen zian kaiñoi txikiyakin juten zianak, azkenak juten ziala frentea, eta hemen dao trintxera, eta trintxeren gaiñian jartzen ziala, kaiñoi txikiyak. Eta beaiyek iñungo defensaik gabe. Danak hiltzen ziala. Horrea denunziatu zunak nere senarrai zor zion, zeatikan radioak eta konpontzen zitun nere senarrak, eta beste... militarren semia zan; plaza

Gipuzkuan denda txiki bat jarri zun, beak ez zekin /etzekin/ ezer´e eta konpontzeko ta gauzak. Nere senarrak konpondu, ta beak ez zion patzen. Eta bera, bea zorretan ta denuntziya. “Montaña número 11” emateko. “Es que, es que” holako gauzak ikusi dia asko, asko gaiñea. Asko.

### 35. Goserik ez zuten pasatu

- **Erref:** DON-046/049
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:38:30. **Bukatu:** 01:40:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Politika eta Franco

#### Laburpena:

Gerraostean goserik ez zuten pasatu, amak dirua bazuelako. Beheko andreak itxurak egiten omen zituen, goseak zeudela, eta udaletxeak ematen zien jana egunero. Hasieran ez zegoen errazionamendurik. Gero bai, eta lentejek zomorroak zituzten.

#### Transkripzioa

-Zuek goserik-eta pasa zenuten gerra ondoren?

-Ez. Ez, ez.

-Baiña egongo zan miseriya... inguruetan.

-Bai, eongo zan; nik ez det ikusi, e. Neri “por ejemplo” guk... bueno, ez dizut esango, zeatik pentsatuko zute harrokeiya... Ez. Dirua zeukan nere amak, eta orduan ematen zuten ez naiz goatzen zian bostehun pezta “caja de ahorros” batetik eta bostehun bestetik o zian dana iten zutela bostehun, hori... bostehun badakit; zer zan ez dakit, baiñon nere amak zeukan dirua, eta guk goseik ez deu pasa, ezta pentsatu ere. Baiño nere lehengusua eta, ez dakit, zea... Petra, behiyan bizi zana... senarra falanjista zan, eta iten zuten itxura ba geizki zebiltzatela ta ez: zeukaten alkilatua Guardia Zibillei. Hotelian´de guardia zibillak zeuden. Hotel Continentalian zegon nere lehengusua lanian. “O sea que”... baiño beaiyek itxura iten zuten gosiak zeudela, eta orduan nere amak esan zion: “Ba beida, udaletxiak emate(n) (d)u jana, eta jun zaite, donostiarra zea zu´re”. Eta eo udaletxiak ematen zioten jana egunero, e. Xesto bate... juten zian, eiteko, ez eiña jana, eiteko. Esnia ta... Eta gero dirua ere bai ogiya ta gauzak erosteko; “o sea que” juten zanai bai.

-Razionamendutik aparte, hori?

-Ez, orduan ez zegon /etzegon/ hasieran rasionamentuikan. Gero izandu zan rasionamendua.

-Alaba: Baiño urtetan.

-Bai, bai, gero. Eta jo, ematen zituzten lenteja batzuk eta garbantzu batzuk eta... bua, zomorro gehiyokin ez dakit zer baiño.

### 36. Amildegitik bizirik irten zen nafarra

- **Erref:** DON-046/051
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:41:01. **Bukatu:** 01:42:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

**Laburpena:**

Gizon bat joan zitzaien etxera. Nafarroan amildegi batetik bota zuten, baina bizirik atera zen nolabait. Goseak zegoen, gaizki jantzia... Jaten eman zioten denek. Laguntzeko prest zeuden toki batzuetan, Ondarroan, adibidez, etxeak zabalik.

**37. Jaiak: inauteriak, San Sebastian**

- **Erref:** DON-046/053
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:43:18. **Bukatu:** 01:46:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

**Laburpena:**

<p>Inauterietan, inudeen konpartsan irteten zen. Garibai kalean erakusten zuten dantzan, hiru gizonak. Egin gabe egon zen hainbat urtean. Gerra aurretik kaldereroak ere izaten ziren. San Sebastian eguna eta Artesanakoak. Donostia asko hazi da, jende gehiago bizi da.</p>

**Transkripzioa**

-Iñauteriak-eta, ospatzen zenituen?

-Etxian.

-Etxian?

-Goatzen zea? Ah jakiña, lehen? Lehenore bai, jakiña! Ni atera nitzan konparsa zea, iñodetan, ni gauza askotan sartu izandu naiz, zean erakusten ziguten, Calle Garibain, hiru gizonak erakusten ziguten iñuriena ta artzaiyena. Eta bueno, gero ez zuten atera ez dakit zergatikan, ni atera nitzanean eondu zian urte batzuk ez ziala atera. Euskal billeren zea zan, gehiyena iten zuna hemen, zeatikan orduan ere, zeak, beste hoiyek nola dia, kaldereruak ere kendu zituzten ta dana, ez dakit zergatikan eondu zan in gabe. Baiñon bai, festa guztita, beti.

-Hori iñudiana-ta, gerra aurretik? Ibili ziñan hortan?

-Bai, bai.

-Ta kaldereruana ere, gerra aurretik iten zan?

-Bai, bai, bai. Hoiiek, Jesus, nik beti ezautu ditut, festa hoiyek beti, beti.

-Eta, donostiko hola festa inportantiena edo, San Sebastian eguna izango zan? Hori lehen nola ospatzen zan?

-San Sebastian eguna? Ba, gutxi gorabehera oain bezela, jende gutxiyo zeon, eta gutxiyo izan bihar baiñon bestela bai, ta Artesanak ateratzen zun izugarri ederra, zaldi pillakin ateatzen zan, baiño ordu txarra zeukaten ta nahiko mozkorrak ateatzen zian. Hor bai. Eta hasi zianian ateratzen, nola ateatzen dia oain? Hurrengo egunian o nola ateratzen dia Artesanakuak? Oain oso ondo ateratzen dia, oso ondo. Baiño lehen ederra, ederra zeukaten, oso ederra eh! Baiñon hori, ordu txarra zan. Bai, bai. Bai, bai, bai.

-Eta asko ertetzen zian, danborra jotzen? Ala orain baiño gutxio?

-Jakiña! Eske ezin dezu konparazyoa ein, lehen bizi zan jendia, eta oain

bizi dan jendia eske, eske ezin da, zeatikan esan leike, ombre, zenbat etxe in dia Grosen, zenbat etxe in dia Amaran, zenbat etxe in dian Antiguan, eske ezin da, ezin da, konparaziyoik ezin da eman lehengua ta oaingua. Lehenoko jende asko, eta oaingo jende asko, baiño da gehiyo daolako.

### 38. Angulak eta kokotxak

- **Erref:** DON-046/055
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:46:13. **Bukatu:** 01:47:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

#### Laburpena:

<p>Angulak jateko ez zegoen egun jakinik, harrokeriak dira horiek bere ustez. Aitaren kokotxak Nicolasa jatetxeoak erosten zizkien.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-04-06*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com